



Zañartuko eskolia

Udako bakaziñuen ondoren, laister ekingo xau e gure herriko eskolak be urteroko martxiari. Aitzakixa horrekin eta Zañartuko Santikruzak be hillabete honetan izaten dirala kontuan izanda, gaurko fotografixa zaharrian auzo horretako eskola-umiak ikusteko aukeria eskintzen dotzuegu. **Zañartuko eskolia** 1909xan jaso zan Santi Krutz ermitiariekin batera **Teresa Elorza** andriaren fundaziño bateri esker. Emakume hau Frantzisko Antonio Elorza jeneral araoztarraren alabía zan eta alargundu eta gero, Zañartuko Zelakora etorri zan bizi izatera; **Doña Teresa** bertan hil zan eta ermita barruan lurperatuta dago.

Eskolako arduradun **Karidadeko monjak** jarri zittuain. Oñatin bazan ordurako ordena bereko beste komunidade bat ospitalian, eskola-lanetan be ziharduana. Monja honeik ixa ehun urte beranduago antzeko zeregiñetan dihardue gure artian. Duta dala, Zañartuko monjak 1955-56 ingurura arte ibilli ziran irakaskuntzan auzo haretan. Karidadeko ahizpak aldetea gero be, eskola 1970ra arte-edo jarraitu eben beste maistra batzuekin. Bueno, eta beste barik, larogei bat urte eukiko dituen argazki honetan agerketan diranak zeintzuk diran esan biharko dogu ba! Gehixenak Zañartukuak izan arren, badira **Garagaltza**, **San Pedro Madalena**, **Goribar** eta **Larraña** auzuetako ikasliak be. Goitikk behera eta ezkerretik eskumara honeitxek ditzue:

Goixeneko illaran zutik: Bixi **Murguzur**, *Balantzategikua*; Migel **Ugarte**, *Kanpiazelaikua*; Kruz **Eguren**, *Mugartza Txikiñekua*; Donato **Zabala**, *San Pedroko kalejakua*; Alejandro **Oianguren**, *Zañartu Etxebarrikua*; Antonio **Guridi**, *Ipentzakua*; Patxi **Txintxurreta**, *Kanpiazelaikua*; Felix **Anduaga**, *Etxatxokua*; Felix **Belloso**, *Jardingua*; Paula **Ormazabal**, *Balantzategikua*; Juli **Zubia**, *Etxenauskua*; eta Maria **Guridi**, *Ipentzakua*.

Bigarren illaran zutik: Genobeba **Arregi**, *Olabarrikua*; Sor **Josefina Arrue**; Maria **Igartua**, *San Juliangua*; Benita **Elorza Elazarrakua**; X. X.; Enkarna **Zubia**, *Etxenauskua*; Lina **Urzelai**, *Belaskua*; X. X.; Genobeba eta Maxima **Zelaia**, *Upaingua*; Sor **Karmen**, donostiarra; Maria **Moiua**, *Exibai Txikiñekua*; eta Sor **Josefina**.

Hirugarren illaran jarritta: Ines **Etxezarreta**, *Etxandikua*; Juanita **Urzelai**, *Albarritzakua*; Enkarna **Arabaolaza**, *Barberriakua*; Angeles **Guridi**, *Ipentzakua*; Sor **Josefa Martínez**, superioria; Mari Kruz eta Baxili **Enparanza**, *Usakokuak*; Luis **Belloso**, *Jardingua*; Juanito **Zelaia**, *Upaingua*; Maxima **Ugarte**, *Askonitzakua*; Jazinta **Guridi**, *Ipentzakua*; eta Sabina **Elorza**, *Elazarrakua*.

Beheko illaran, lurrian jarritta: Anastasio **Iarza**, *Errota Barrikua*; Angel **Eguren**, *Mugartza Txikiñekua*; Joxe Mari **Belloso**, *Jardingua*; Juli **Iarza**, *Errota Barrikua*; Enkarna **Oianguren**, *Zañartu Etxebarrikua*; Maritxu **Anduaga**, *Etxatxokua*; Sabina **Barrena**, *Munazategikua*; Maria Angeles **Ugarte**, *Askonitzakua*; Isidora eta Hillario **Billar**, *Urbietakuak*; Juanita **Txintxurreta**, *Kanpiazelaikua*; Pedro **Murguzur**, *Balantzategikua*; eta Gregorio **Belloso**, *Jardingua*.

J. E.

Fotografixa Legazpin bizi dan Sabina Barrenarena da eta guri Mari Karmen Oianguren bere ilobiaren biltartez heldu xaku. Argibide gehixenak Sabinarenak dira. Karmen Ituarte, Maixabel Elortza, Gabino Beitia, Elena Egaña, Manolo Egaña, Maxima Ugarte eta Karmelo Arregik be datu batzuk eskuratu doskue. Eskerrik asko danol!